

## ONDARRABIAKO KONDAIRA (KAMINAZPI)

### ONDARRABIA ALA ONDARRIBIA?

Joan dan udan Kamiñazpi'k liburu barria atera eban "Ondarrabia'ko Kondaira" izenekoa. Erriaren izenari buruzko itaun au egiten dau: Ondarrabia ala Ondarribia.

Arazoa argitzeko Santxo Erregearen dokumentu bat dakar, 1.170 urtearen ingurukoa eta bertan auxe diño: "De Undarribia usque ad Oriam" = Undarribia'tik Oriaraiño.

Beraz, orduko izena *ibiarekin* amaitzen zan: Undar-*ibia*.

Undar ori ondar dala garbi dago: Ondarribia. Berba onetatik Ondarra-bia'ra ez da orrelako alde aundirik; *a* bat artun dau (Ondar Ondarra) eta *i* bat galdu dau (Ondarribia: Ondarrabia).

\* \* \*

Arazoari argi geiago emoteko beste izen bi dakaz: *Urdanibia* eta *Behobia*. Urdanibia Ondarrabian dago eta Behobia errekan gora, Ondarrabia'tik kilometro batzuetara.

*Urdanibia* bere amaiera ondo gordetzen dau: *ibia*. Behobia, berriz, *i* bat galdu dau, Ondarrabia egin daua-na berbera Beho-bia.

\* \* \*

*Undar-ibia* zan Santxo Erregearen izena. Izen zaarra. 1170'garren urtekoa. Eta, Ondarrabiko *Urdan-ibia* be usain zaarra dau.

Nere iritzirako *Undar* eta *Urdan* biak dira berba bakarra: *r* eta *n* tokiz aldatu dira eta amaiera bardiña dabe, *ibia*.

Biak ondar-ibia dirala ematen dabe.

*Ibia*, erderaz *vado*, pasalekua. Mujikak adibide oneik agertzen ditu: *ibia* igaro, *ibitik* igaro, *ibiz* igaro.

Gipuzkoa eta Bizkaian beste au be esan nai dau: maria-beera, bajamar... Esan-nai onek ba-dau bestearekin zerikusirik, maria-beeran errez pasatzen ei dira ibaiak betetik bestera. Maria-beera, berez, ondar-ibia da.

Ibiak edonun dagoz erreketan; Bidasoan be an dago Beho-bia itsasotik gora. *H'a* antxiña *K* aoskatzen eben. Orregaitik Behobia Beko-ibia da. Bi ibi egozan: bat ondartzan eta bestea andik kilometro batzuetara, gerora lenengo zubia egin eben lekuan. Behobiako zubia izan da lenengoa; geroago egin ebezan Irun'go beste bi zubiak: bata bide-zabalarena eta bestea tren-bidearena.

\* \* \*

Deba'n be bardin gertatzen da: orain dagoen zubia, barria da; zubi zaarrak Astigar-ibia'n egozen, itsasotik bost kilometrora, Sasiola inguruan. Erromatarren garaiko zubi baten aztarnak dagoz, eta gorago lenengo bide-zabaleko zubia, eta aren aurrean zubi barria eta bien gaiñetik, autopistako bi zubi mando. Danak alkarregaz.

Ondartzatik kanpora, an egoan "Deva" ibaiaren ibia.

\* \* \*

Barruan be bardin-bardin gertaten da. Lazkano erriak badauko erdi-erdian bide zabaleko zubi bat; baiña, antxiñako bide estuak, Olaberriatik beera etorrena, arek Amil-ibia'n dauko bere zubi zaarra, Ataungo mugan. An egoan Agaunza errekan ibia, batetik bestera pasateko lekurik errazena eta antxe bertan egin eben zubia.

\* \* \*

Arazoa naiko garbi ikusten dot: Bidasoaren barran, maria-beeran, ibia egoten zan beste aldera pasateko eta ortatik datorkio Ondar-bia edo Ondarra-ibia ipiñitako izana.

ARRINDA'tar ANES